

AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOA

4

ADMINISTRACIÓN DE LA COMUNIDAD
AUTÓNOMA

***Ekarpenak GEROAra (75.art)**

***Aportaciones a GEROA (art.75)**

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

LAN ETA ENPLEGU SAILA

DEPARTAMENTO DE TRABAJO Y EMPLEO

Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza

Delegación Territorial de Gipuzkoa

EBAZPENA, Lan eta Gizarte Segurantzako Lurralde ordezkaritza, 2022-2025 urteetarako Gipuzkoako Pasta, Paper eta Kartoigintzaren Lan Hitzarmenaren erregistroa, gordailua eta argitalpena agintzen duena (20000965011981 kodea).

RESOLUCIÓN del Delegado Territorial de Trabajo y Seguridad Social, por la que se dispone el registro, publicación y depósito del convenio colectivo de Fabricación de Pasta, Papel y Cartón de Gipuzkoa para los años 2022-2025 (código 20000965011981).

AURREKARIAK

ANTECEDENTES

Lehenengoa. 2022ko uztailaren 22an sinatu zuten aipatutako hitzarmen kolektiboa Adegik, enpresen izenean, eta LAB eta CCOO sindikatuek, langileen izenean.

Primero. El día 22 de julio de 2022, se suscribió el convenio citado por Adegik, en representación de las empresas, y LAB y CCOO, en representación de la parte trabajadora.

Bigarrena. 2022ko abuztuaren 3an aurkeztu zen Lurralde Ordezkaritza honetan, adierazitako hitzarmenaren erregistro, gordailu eta argitalpen eskaera.

Segundo. El día 3 de agosto de 2022, se presentó en esta Delegación Territorial solicitud de registro, depósito y publicación del referido convenio.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Lehenengoa. Urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 90.2 artikuluan aurreikusitako eskuduntza, lan agintaritzari honi dagokio, honako arautegiaren arabera: Lan eta Enplegu Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen, urtarrilaren 19ko 7/2021 Dekretuaren 14.1.g artikulua (2021-01-29ko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*); urtarrilaren 25eko 9/2011 Dekretua (2011-2-15eko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*) eta maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretua (2010-6-12ko *Estatuko Aldizkari Ofiziala*), hitzarmen eta akordio kolektiboen erregistro eta gordailuari buruzkoak.

Primero. La competencia prevista en el art. 90.2 del texto refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores, Real Decreto Legislativo 2/2015, de 23 de octubre corresponde a esta autoridad laboral de conformidad con el art. 14.1.g del Decreto 7/2021, de 19 de enero (*Boletín Oficial del País Vasco* de 29-01-2021) por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Trabajo y Empleo, en relación con el Decreto 9/2011, de 25 de enero (*Boletín Oficial del País Vasco* de 15-2-2011) y con el Real Decreto 713/2010, de 28 de mayo (*Boletín Oficial del Estado* de 12-6-2010) sobre registro y depósito de convenios y acuerdos colectivos.

Bigarrena. Sinatutako akordioak aurretik aipatutako Langileen Estatutuaren Legearen 85, 88, 89 eta 90 artikuluek xedatutako baldintzak betetzen ditu.

Segundo. El acuerdo ha sido suscrito de conformidad con los requisitos de los artículos 85, 88, 89 y 90 de la referenciada Ley del Estatuto de los Trabajadores.

Honen ondorioz,

En su virtud,

EBATZI DUT

RESUELVO

Lehenengoa. Hitzarmen eta Akordio Kolektiboen Erregistroan inskribatzeko eta gordailutzeko eta aldeei jakinarazteko agindua ematea.

Primero. Ordenar su inscripción y depósito en el Registro de Convenios y Acuerdos Colectivos, con notificación a las partes.

Bigarrena. Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzeko agintzea.

Segundo. Disponer su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Donostia, 2022ko abuztuaren 9a.—Juan María Esnaola Mendizabal, jarduneko lurralde ordezkaritza. (5363)

San Sebastián, a 9 de agosto de 2022.—El delegado territorial en funciones, Juan María Esnaola Mendizabal. (5363)

Gipuzkoako Pasta, Paper eta Kartoigintzaren Hitzarmen Kolektiboa 2022-2025.

Convenio Colectivo de Fabricación de Pastas, Papel y Cartón de Gipuzkoa 2022-2025.

1. artikulua. Funtzio eremua.

Artículo 1. Ámbito funcional.

Honako Oinarrizko Hitzarmen Kolektibo hau Gipuzkoako Probintziako Pasta, Paper eta Kartoi fabrikazioaren Sektorearen barruan dagoen Enpresa eta Lantoki orok bete beharrekoa da.

El presente Convenio Colectivo Básico es de obligado cumplimiento para todas las Empresas y Centros de Trabajo pertenecientes al sector de la Fabricación de Pastas, Papel y Cartón de la Provincia de Gipuzkoa.

2. artikulua. Pertsona-eremua.

Honako Oinarrizko Hitzarmen Kolektibo honek 1. artikuluan ezartzen den baldintza betetzen duten Enpresetan bere zerbitzuak eskaintzen dituen langile oro behartzen du, baso-ustiape-netako langileak izan ezik, beste ekonomi sektore batean kokatuta baitago, Bigarren Xedapen Gehigarrian Xedatutakoaren kaltetan izan gabe.

Halaber, mozkinetan partehartzea, aparteko haborokinak eta ordainsariak izeneko artikuluetan adierazitakoa ez zaie aplikatuko zuzendariei, zuzendariordeei eta teknikari-buruei.

3. artikulua. Denbora eremua.

Honako Oinarrizko Hitzarmen Kolektibo honek zehaztu gabeko iraupena du, Bosgarren Xedapen Gehigarrian ezarritakoaren kaltetan izan gabe.

Sinatu ondoren jarriko da indarrean; alabaina, bere ondorioak 1994ko urtarrilaren 1eko atzeraeragina izango dute. Hala eta guztiz ere, honen eranskinek horietako bakoitzean zehazki adierazten den iraupena izango dute.

Eranskinek ultraeraginkortasun mugagabea izango dute. Hala ere, II. eranskinetik VIII. eranskinera bitartean soldata-arloan lortutako urteko akordioen indarraldi zehatza 2022ko urtarrilaren 1etik 2025eko abenduaren 31ra artekoa izango da.

3 bis artikulua. Ondorioak.

Honako Oinarrizko Hitzarmen Kolektibo hau arautzailea da eta bere indarraldian bere eremu funtzionalean barnebiltzen diren Enpresa eta langile guztiak behartzen ditu, hori guztia Langileen Estatutuaren 82, 83.1 eta 84. artikuluetan ezarritakoari jarraiki, eta Non Stop eta Txanda Jarrai kontzeptuetan Enpresetan itun daitezkeen hobekuntzen kaltetan izan gabe.

Ondorio horretarako ezarritako aldi horietakoren batean saltzen badute, eta espresuki adostasunik lortzen ez den artean, indarrean iraungo du Hitzarmenaren testu arautzaileak.

4. artikulua. Garantia pertsonalak.

Hitzarmen honetan ezarritakoak baino onuragarriagoak diren baldintza ekonomikoak eta bestelako izaera dutenak norbanako eta kolektibo gisa errespetatuko dira, bere osotasunean eta urteko konputuan hartuz.

5. artikulua. Konpentsazioa eta zurgapena.

Itundutako baldintzek osotasun organiko eta zatiezina osatzen dute, Enpresak edo zegoen legezko arauak ezarritako hobekuntzagatik lehenago eraentzen zutenekin bere osotasunean konpentsa eta zurga daitezke.

6. artikulua. Lanaldia.

1. Enpresaren produkzio aldia gauza bat da eta bestea langileek beteko duten lanaldia.

2. Langile bakoitzak urtean beteko duen lanaldia I. eranskinen urte horretarako ezarrita dagoena izango da. Hor agertzen den zenbatekoak, dela eguneko lanaldi zatikatuan dela jarraituan, langileak jardunean beteko dituen orduak adierazten ditu.

Izaera orokorrez, era honetara banatuko da hitzartutako lanaldia: Egunero 8 ordu, astelehenetik ostiralera.

3. Non Stop sistema ezarrita duten enpresetan urtarrilaren 1, maiatzaren 1 eta abenduaren 24, 25 eta 31a izango dira gelditze egunak. Gelditze egun horiek adierazgarri gisa ezartzen dira eta alderdien arteko adostasunez beste 5 egun desberdin finkatu ahal izango dira.

Aurrekoa hala izanik ere, pasta fabrikatzen duten enpresek, ahalik eta taldetik txikiena mantenduko dute lanean gelditzen egun horietan, produkzioari berriro ekiteko ezinbesteko makineriak funtzionamendu egoera hoberean iraun dezan.

Artículo 2. Ámbito Personal.

El presente Convenio Colectivo Básico obliga a todos/as los/as trabajadores/as que presten sus servicios en las Empresas que cumplan la condición establecida en el art. 1 con la excepción del personal perteneciente a explotaciones forestales por estar encuadrados/as en otro sector económico, sin perjuicio de lo dispuesto en la Disposición Transitoria 8.^a

Asimismo, quedan excluidos/as de la aplicación de los artículos denominados participación en beneficios, gratificaciones extraordinarias y retribuciones, los/las directores/as, subdirectores/as y técnicos jefes.

Artículo 3. Ámbito Temporal.

El presente Convenio Colectivo Básico, tiene una vigencia indeterminada, sin perjuicio de lo establecido en la Disposición Adicional Quinta.

Entrará en vigor, a partir de su firma, si bien sus efectos se retrotraen al 1 de enero de 1994.

Los anexos tendrán ultraactividad indefinida, sin perjuicio de la vigencia concreta de los acuerdos anuales alcanzados en materia salarial en los anexos II a VIII que estará limitada a una vigencia desde el 1 de enero de 2022 al 31 de diciembre de 2025.

Artículo 3 bis. Efectos.

El presente Convenio Colectivo Básico, tiene fuerza normativa y obliga por todo el tiempo de su vigencia a la totalidad de las Empresas y trabajadores/as comprendidos/as en su ámbito funcional, todo ello de acuerdo con lo establecido en los Arts. 82, 83.1 y 84 del Estatuto de los Trabajadores, y sin perjuicio de las mejoras que pudieran pactarse en los conceptos de Non-Stop y Correturnos en el seno de las Empresas.

En el caso de que fuere denunciado en alguno de los períodos establecidos al efecto, y hasta tanto no se logre acuerdo expreso, el texto normativo del Convenio seguirá en vigor.

Artículo 4. Garantías personales.

Se respetarán a título individual y colectivo, las condiciones económicas y de otra índole, que fueran más beneficiosas a las establecidas en el presente Convenio, consideradas en su conjunto y cómputo anual.

Artículo 5. Compensación y absorción.

Las condiciones pactadas forman un todo orgánico e indivisible siendo compensables y absorbibles en su totalidad con las que anteriormente rigiesen por mejora establecida por la Empresa o por norma legal existente.

Artículo 6. Jornada laboral.

1. La jornada productiva de la Empresa es independiente de la jornada laboral de los/as trabajadores/as.

2. La jornada máxima anual de cada trabajador/a será la fijada en el anexo I y para el periodo previsto en el mismo. Dicha cuantía serán horas de presencia en el puesto de trabajo, tanto en la jornada partida como continuada.

Como regla de carácter general, la jornada pactada se llevará a cabo de forma que se trabajen 8 horas diarias de lunes a viernes.

3. En aquellas Empresas en que esté implantado el sistema de Non Stop serán días de paro el 1 de enero, 1 de mayo y 24, 25 y 31 de diciembre. Estos días de paro se establecen a título indicativo pudiendo fijarse otros 5 días distintos por acuerdo entre las partes.

No obstante lo anterior, las Empresas de fabricación de Pastas, mantendrán un equipo reducido al máximo, a fin de que la maquinaria imprescindible para reanudar la producción se mantenga en condiciones óptimas de funcionamiento.

Egun horietarako eraturako talde horretako langileen ordain-saria, taldea osatzen duten langileek eta enpresako zuzendaritzak itunduko dute. Horrela itundutako baldintzak enpresa baztordeari zein langileen delegatuei emango zaizkie jakitera.

4. 1980ko hitzarmenean jasotako lan sistemaren batera lotzen ez diren enpresak langileen legezko ordezkariekin negoziatuko dute, langileen lanaldia eta enpresaren produkzio aldia bateragarriak izan daitezten.

Adostasunik lortzen ez bada, langileek euren egungo lan sistemari jarraituko diote, aldaketarik egin gabe, eta enpresak denbora partzialean kontratatuko ahal izango ditu langileak, produkzio aldia luzatzeko eta/edo osatzeko.

Denbora partzialeko kontratu horiek indarrean dagoen legerian ezarritakora lotuko dira, mahai negoziatzaile iraunkorrak behin betiko akordioak lortzen ez duen artean.

5. Negoziazioen ondoren, Non Stop sistema edo txanda jarraia ezartzen den enpresetan, egungo langileek erabateko lehenespena izango dute sistema horretan sartzeko orduan.

7. artikulua. Jarraiko lanaldiaren konpentsazioa.

Egunean 5 ordu baino gehiago jarraian egiten duten langileek ezin badute 20 minutuko atsedenik hartu, lanak hala eskatzen duelako, II. eranskinean azaltzen den zenbatekoa jasoko dute, hartu ezin izan duten atseden horren ordainetan. Atsedenik hartu gabe benetan lanean jardundako egunen ordainez emango da jarraiko lanaldiaren konpentsazioa.

Aurreko atalean aipatutako konpentsazio ekonomikoa alokairuaren ordainagirian sartuko da «Jarraiko lanaldiaren konpentsazioa» izeneko aparteko laukian eta ez da, inola ere, aparteko ordu bezala konputatuko.

Lehen aipatu den atsedenaldi finkoarekin zerikusirik gabe, langileek lehendik dituzten atsedenaldi handiagoak errespetatuko dira eta atsedenaldi horiek hartzea ezinezkoa balitz, II. eranskinean zehaztutako zenbatekoa ordainduko litzateke egoterra horretan dauden langileei. Hala ere, hitzarmen hau indarrean sartzen denean enpresek kopuru hori baino handiagoa ordaintzen badute jarraiko lanaldiaren konpentsazio gisa, zenbateko horiek mantenduko dira.

Lanaldiaren ondorioetarako, lanean jardundako denboraztat hartuko da atsedenaldia.

8. artikulua. Oporrak.

Hitzarmen honetara lotzen diren langile guztiak izango dituzte 30 egun natural ordainduzko oporrak, eta horietatik gutxienez 26 lanegunak izango dira. Lehentasunez udan hartuko dira oporrak, eta langileek txanda errotatiboan aukeratuko dituzte bere opor egunak, betiere enpresak bere produkzio jarduera uzten ez duen kasuan.

Herrialdeko jaiegunen egutegian lanegun izendatzen direnak izango dira hitzarmen honetako langileek beteko dituzten lanegunak.

Urtean zehar lanean sartu diren edo lana utzi duten langileek, opor zati proportzionala hartzeko eskubidea izango dute lan egindako hilabete kopuruaren arabera; esandakoaren eraginetarako, hilabete osotzat hartuko da horren zatikia.

Egutegian finkatutako oporraldian langilea aldi baterako ezintasunean badago, zeinahi kontingentziak eraginda, edo Langileen Estatutuaren 48. artikuluen 4., 5. eta 7. zenbakietan azaltzen den kontratu-etenaldian badago, oporrak nahitaez hartu beharko ditu kontratu-etenaldia, aldi baterako ezintasuna edo baimena amaitu ostean, baita hemezortzi hilabete baino gehiago pasatu badira ere.

La retribución de los/as trabajadores/as de ese equipo constituido para estos días, se pactará entre los/as trabajadores/as que lo constituyen y la Dirección de la Empresa, comunicándose las condiciones del pacto al Comité de Empresa o Delegados/as de Personal.

4. Las Empresas en las que no se esté trabajando en cualquiera de los sistemas de trabajo recogidos en el Convenio de 1980, entablarán negociaciones con los/as representantes legales de los/as trabajadores/as para hacer compatibles la jornada laboral del/a trabajador/a y la jornada productiva de la Empresa.

De no llegar a un acuerdo, los/as trabajadores/as continuarán con su sistema actual de trabajo sin modificación, y la Empresa podrá contratar trabajadores/as a tiempo parcial para alargar y/o completar la jornada productiva.

Esta contratación a tiempo parcial se ajustará a las normas establecidas en la legislación vigente, en tanto que la Mesa Negociadora Permanente que se establece no alcance acuerdos definitivos.

5. En aquellas Empresas que, tras las negociaciones, se implante el sistema del Non Stop o Corretornos, los/as actuales trabajadores/as gozarán de preferencia absoluta a la hora de integrarse en dicho sistema.

Artículo 7. Compensación por jornada continuada.

Los/as trabajadores/as que realicen su actividad durante un periodo superior a 5 horas diarias continuadas, y por la índole de su trabajo no puedan descansar los 20 minutos, percibirán por éste concepto el importe que se indica en el anexo II. Esta compensación se hará realmente por día trabajado sin éste descanso.

La compensación económica a que se refiere el párrafo anterior se incluirá en el recibo salarial en casilla aparte bajo el concepto «Compensación por Jornada Continuada» («C.J.C.») y no se computará a ningún efecto como Horas Extraordinarias.

No obstante el periodo de descanso establecido anteriormente, se respetarán los periodos de descanso superiores que vengán disfrutando los/as trabajadores/as y en el supuesto de que dicho descanso no se disfrute, se abonará el importe que se indica en el anexo II, salvo que por este concepto se abone por las Empresas, a la entrada en vigor del presente Convenio, cantidades superiores al mencionado valor, en cuyo caso se mantendrán las cantidades existentes.

A efectos de jornada, este tiempo de descanso se computará como de presencia.

Artículo 8. Vacaciones.

Las vacaciones retribuidas para todo el personal que se rija por este Convenio, serán de 30 días naturales, de los cuales al menos 26 serán laborales, que se disfrutarán preferentemente en verano y de forma rotativa entre el personal, en el supuesto de que la Empresa no cese sus actividades productivas.

Son días laborables los que así constan en el calendario de fiestas laborables del año para la provincia.

El personal que ingrese o cese en el transcurso del año tendrá derecho a la parte proporcional de las vacaciones según el número de meses trabajados, computándose como mes completo la fracción del mismo.

Cuando el periodo de vacaciones fijado en el calendario coincida en el tiempo con una incapacidad temporal derivada de cualquier contingencia o con el periodo de suspensión del contrato de trabajo previsto en los apartados 4, 5 y 7 del artículo 48 del Estatuto de los Trabajadores, las vacaciones deberán disfrutarse inmediatamente después de la finalización de la suspensión del contrato, incapacidad temporal o permiso correspondiente, pudiendo disfrutarse aunque hayan transcurrido más de dieciocho meses.

9. artikulua. Lan-egutegia.

Enpresaren zuzendaritzak, langileen ordezkarien aurretiazko ezagutzarekin, urteko lan-egutegia eta ordutegia ezarriko ditu.

Gipuzkoarako lan-egutegi ofiziala argitaratu eta 40 eguneko epean Enpresaren Zuzendaritzak azalduko du langile guztien lan-egutegia eta bertan, gutxienez, lan-jardunaren ordutegia barne hartu beharko da.

Enpresaren Zuzendaritzak lan-egutegi eta ordutegiak finkatu ondoren, urteko lan-jardunaldiak aldaketarik badu, Enpresaren Zuzendaritzak 15 eguneko epean ezarriko ditu beharrezko egokitzapenak horietan.

Bigarren paragrafoan adierazitako egunetik 40 egun natural igaro ondoren, lan-egutegia eta ordutegia ezarri ez badira, langileen ordezkariak, hurrengo hilabetean, lan-egutegiak finkatzeko ahalmena izango dute, urteko gehienezko ordu kopurua errespetatuz.

10. artikulua. Aparteko orduak.

Gaur egungo langabezia egoera kontuan izanik eta horren ondorioak arindu asmoz, arau orokor bezala ez da aparteko ordurik sartuko. Arau horretatik salbuetsita daude, hala ere, ezinbestean edota egitura izaeraz sor daitezkeen egoerak, baldin eta horien ondorioz lana burutu ahal izateko beharrezkoa egiten bada aparteko orduak sartzea eta horiek aldi baterako edo denbora partzialeko kontratuz ezin badira bete.

– Ezinbesteko orduak: Ezbeharrak, suteak, uholdeak edo bestelako zorigaitzak ekarritako kalteak konpontzeko edo saihesteko sartzan direnak.

– Beharrezko edo egiturazko orduak: Honako arrazoi hauek diren baten ondorioz sartzan direnak dira: Lehengaiak edo produktu bukatuak gaitzeko arriskua dagoenean, txanda aldaketak, langilearen bat-bateko gaixotasuna; edo, honako balizko hauekako lizentzia ordainduetan: Emaztearen erditzea, ezkontidearen, seme-alaben, gurasoen, anai-arreben, biloben edo aiton-amonen gaixotasun larria edota aipatutako senitartekoen heriotza.

Bi alderdien akordioz, egintza eragilea gertatu ondorengo edota enpresari jakinarazi ondorengo 32 ordutan bete behar dira ordu horiek. Enpresak, horrelakoetan, bazkaria eta garraioa bermatu beharko ditu eta, era berean, bazkaltzeko behar den ordu-erdia lanean jardundakoa bezala ordainduko du. Dena den, ohiko produkzio prozesua ez da etengo eta egoerarik onuragarrienak errespetatuko dira.

Beharrezko edo egiturazko aparteko ordutzat hartuko dira, halaber, enpresak derrigorrez eman behar dituen eta atal honetako lehen pasartean bildu gabeko lizentzia ordainduen ondorioz sortzen diren orduak.

Horrelako kasuetan, bi alderdiak bat datoz ordu horiek egintza eragilearen ondorengo 24 orduen barruan eta aurreko pasartean ezarritako baldintzetan bete behar direla esaterakoan. Hala ere, bakoitzak lan hori burutzeko azaltzen duen borondatea errespetatuko da.

Batzorde Parekideari dagokio artikulua hau aplikatzerakoan sor daitezkeen zalantzak erabakitzea.

Aparteko orduak egitea beharrezkoa denean, atsedenez konpentsatuko dira: Ordutegi arruntean eta gauean egindako aparteko ordu bakoitzeko ordu bat eta hogein minutuko atsedena ordu eta, jaiegunetako ordu bakoitzeko, berriz, ordu bat eta berrogei minutuko atsedena ordu. Ez dira inolara ere diruz ordainduko.

Aparteko orduen ordainetako atsedena orduak, ahal dela, enpresak eta langileak adostuko duten egunetan hartuko dira. Desadostasunik balego, zuzendaritzak ezarriko du atsedena ordu horiek hartzeko data, langileen arteko atsedena aldiberekoak ez izateko irizpideak jarraituz eta produkzio prozesuaren garapen arrunta eragotzi dezaketen arrazoiak kontuan izanik.

Artículo 9. Calendario laboral.

La Dirección de la Empresa, con conocimiento previo de los representantes de los/as trabajadores/as, establecerá el cuadro horario y el calendario laboral anual.

La Dirección de la Empresa, en el plazo de 40 días a partir de la publicación del Calendario Oficial para Gipuzkoa, señalará el calendario de trabajo para todo el personal, que deberá incluir, al menos, el cuadro horario de la jornada de trabajo.

Si la jornada anual sufriese modificaciones una vez fijados por la Dirección de la Empresa los calendarios y horarios de trabajo, ésta, en el plazo de 15 días, establecerá los ajustes necesarios en los mismos.

Si transcurridos 40 días naturales desde la fecha indicada en el párrafo segundo no se hubiesen establecido los mismos, los/as representantes de los trabajadores/as tendrán la facultad, dentro del mes siguiente, de fijar los calendarios laborales respetando el tope anual de horas.

Artículo 10. Horas extraordinarias.

Dada la situación actual de desempleo, y con el fin de paliar sus efectos, no podrán efectuarse, como norma general de trabajo, horas extraordinarias, quedando exceptuadas aquellas situaciones en que por causa de fuerza mayor, o por su carácter estructural, fuese necesaria su realización y no fuera posible su sustitución por contrataciones temporales o a tiempo parcial.

– Horas de fuerza mayor: Son las que se efectúan para reparar o evitar siniestros, incendios, inundaciones u otras calamidades extraordinarias.

– Horas necesarias o estructurales: Son aquellas que se realizan por riesgo de pérdidas de materias primas o productos acabados, cambios de turno, enfermedad repentina del/a trabajador/a y por licencias retribuidas en los supuestos de alumbramiento de esposa, enfermedad grave del cónyuge, hijos/as, padres, hermanos/as, nietos/as y abuelos/as, así como por muerte de los parientes señalados anteriormente.

Las partes convienen en la necesidad de realizar estas horas durante las 32 horas siguientes al hecho causante o en su caso, al conocimiento del mismo por parte de la Empresa, teniendo la misma, en su caso, la obligación de garantizar la comida y el transporte, abonando asimismo un tiempo de media hora de comida, como efectivamente trabajado, no interrumpiéndose el proceso productivo habitual y respetándose las situaciones más beneficiosas.

La calificación de Horas Extraordinarias necesarias o estructurales se extiende, también, a aquellas cuya realización se derive de las restantes Licencias Retribuidas no recogidas en el párrafo Primero de este Apartado y, cuya concesión sea obligada para la Empresa.

En estos casos, las partes coinciden en la necesidad de realizar estas horas durante las 24 horas siguientes al hecho causante, y en las condiciones establecidas en el párrafo anterior, si bien, se respetará individualmente, la voluntariedad de su realización.

Corresponde a la Comisión Paritaria solucionar cuantas dudas se planteen respecto a la Aplicación de este artículo.

En el supuesto de realización de horas extraordinarias, se compensarán con horas de descanso, equivalentes a 1 hora 20 minutos para las horas normales y nocturnas y 1 hora 40 minutos para las horas festivas, por cada hora extraordinaria trabajada. En ningún caso se compensarán económicamente.

Se procurará que las fechas de su disfrute se establezcan de mutuo acuerdo entre la Empresa y el/la trabajador/a. En el caso de desacuerdo, la Dirección señalará la fecha de su disfrute, atendiendo a los criterios de no-coincidencia de descansos entre trabajadores/as y cualquier otra causa que impida el normal desarrollo del proceso productivo.

Urtarrila eta abuztua (biak barne) bitartean burututako aparteko orduen konpentsazioko atsedena urte natural beraren barruan hartuko da. Iraila eta abendua (biak barne) bitartean burututakoei dagokionez, berriz, ordu horiek sartu diren ondorengo lau hilabeteen barruan.

Hilero, langile bakoitzak burututako aparteko orduen zerrenda eta bere kalifikazioa emango die enpresak langileen ordezkariari. Txosten horrek enpresaren zigilua eta sinadura beharko ditu.

11. artikulua. Baimen ordainduak.

Langileak, ahal bezain azkar aurretik ohartaraziz eta egoki justifikatuz, lanean hutsegina izango du, ordainsaria jasotzeko eskubidearekin, ondoren adierazten diren arrazoietariko bategatik gertatzen bada eta gutxienezko denbora horretan zehar:

a) Ezkontzagatik, 18 egun natural. Egun hauek ezin izango dira opor egun bezala zenbatuko, oporraldiarekin batera gertatzen badira ere.

b) Emaztearen erditzeagatik, 3 egun natural, horietariko bat, gutxienez, lanegun izango delarik eta ez larunbata.

Baimen hau ordaindutako 3 egun natural gehiagotan zabalduko da zesarea bidezko erditzearen kasuan.

Haur goiztiarra jaiotzeagatik edo haurra jaio ostean ospitalerazteagatik, amak edo aitak egunean ordubetez utzi ahal izango du lana haurra ospitalean dagoen bitartean. Era berean, lanaldia murrizteko eskubidea edukiko dute, gehienez 2 ordu; soldata horren proportzio berean murriztuko da. Langileak berak erabakiko du noiz aplikatzen zaion lanaldi-murrizketa, Langileen Estatutuak ezartzen duenarekin bat etorri.

c) Ezkontide, seme-alaba, guraso, anaia-arreba, biloba eta aitona-amonen gaixotasun larriagatik, 2 egun natural edo hurrenez hurreneko lau lan-jardun erdi natural, berau eragin duen arrazoiak irauten duen denboraldian zenbatgarriak. Ospitaleraztea, kasu guztietan, gaixotasun larritzat hartuko da, bai eta dagokion fakultatiboak hala agintzen duenean ere.

Kasu hauetan, onuradunak berehala jakinaraziko dio berau eragin duen arrazoiaren hasiera data Enpresaren Zuzendaritzari.

Alderdiek, ados jarrita, lizentzia erabiltzeko datak ezarriko dituzte, eta langileak eskubidea izango du lizentzia erabiltzeko (lehenengo paragrafoan adierazitako moduan) gertaera eragileak irauten duen bitartean.

d) Ezkontide eta seme-alaben heriotzagatik, 4 egun natural. Ezkontideari eta seme-alabei dagokien lizentzia hori gertaera eragilearen ondorengo lehen lanegunean hasiko da.

Guraso eta anaia-arreben heriotzagatik, 3 egun natural.

Biloba eta aitona-amonen heriotzagatik, 2 egun natural.

e) Lehen mailako senideen eta anaia-arreben ezkontzagatik, egun natural bat.

f) Ohiko bizilekua lekualdatzeagatik, egun natural bat.

b), c), d), eta e) kasuetan, langileak eragin horretarako joan-etorri bat egin behar badu, epea 3 egun natural gehiagoraino luzatu ahal izango da, ondorengo irizpideak kontuan hartuz:

1. Zabalkuntza egun batekoa izango da distantzia 100 km-koa baino handiagoa eta 200 km-koa baino txikiagoa denean.
2. Baimena bi egunetan zabalduko da distantzia 200 km-koa baino handiagoa eta 250 km-koa baino txikiagoa denean.
3. Baimena hiru egunetan zabalduko da distantzia 250 km-koa baino handiagoa denean.

Hiru kasuetan, baimena sortarazten duen senidea aurkitzen den tokia (eritegia edo bizilekua) eta lantokiaren artean dagoen distantzia kontuan hartzen da.

Las horas extraordinarias que se trabajen entre enero y agosto, ambos meses inclusive, se deberán descansar dentro del año natural de que se trate. Las trabajadas entre septiembre y diciembre, ambos meses incluidos, se deberán descansar dentro de los cuatro meses siguientes a su realización.

Mensualmente, las Empresas entregarán a los/as representantes de los/as trabajadores/as relación de las horas extraordinarias realizadas individualmente por cada trabajador/a, así como su calificación. Esta información irá firmada y sellada por la Empresa.

Artículo 11. Licencias retribuidas.

El/la trabajador/a, avisando con la posible antelación y justificándolo adecuadamente, podrá faltar o ausentarse del trabajo, con derecho a remuneración por alguno de los motivos y durante el tiempo mínimo que a continuación se expone:

a) Por matrimonio, 18 días naturales que no se computarán como de vacaciones aunque coincidan con el período vacacional.

b) Por alumbramiento de esposa, 3 días naturales, de las cuales, al menos, uno será laborable y no coincidente en sábado.

Esta licencia se ampliará en 3 días naturales más retribuidos en caso de parto con cesárea.

Por nacimiento de hijos/as prematuros/as u hospitalizados/as después del parto por cualquier motivo, la madre o el padre tendrán derecho a una hora de ausencia al trabajo al día mientras dure la hospitalización. Asimismo, tendrán derecho a reducir su jornada de trabajo hasta un máximo de 2, con la disminución proporcional del salario. Será el trabajador/a quien decida el horario de esa reducción en función a lo establecido en el Estatuto de los Trabajadores.

c) Por enfermedad grave del cónyuge, hijos/as, padres, hermanos/as, nietos/as y abuelos/as, 2 días naturales o cuatro medias jornadas consecutivas naturales, considerándose enfermedad grave, en todo caso, el internamiento en centro hospitalario, o cuando así lo prescriba el/la facultativo/a correspondiente.

En estos supuestos, el/la beneficiario/a comunicará inmediatamente a la Dirección de la Empresa la fecha de inicio del hecho causante.

Las partes establecerán, de común acuerdo, las fechas de su utilización, teniendo derecho el/la trabajador/a a la utilización de la licencia (en los términos indicados en el primer párrafo) mientras dure el hecho causante.

d) Por fallecimiento del cónyuge e hijos/as, 4 días naturales. El disfrute de esta licencia referida al/la cónyuge e hijos/as se iniciará el primer día laborable desde el hecho causante.

Por fallecimiento de padres y hermanos/as, 3 días naturales.

Por fallecimiento de nietos/as y abuelos/as, 2 días naturales.

e) Por boda de parientes en primer grado y hermanos/as, 1 día natural.

f) Por el traslado del domicilio habitual, 1 día natural.

En los casos b), c), d) y e), si el/la trabajador/a necesita hacer un desplazamiento al efecto, el plazo podrá ampliarse hasta 3 días naturales más, con los siguientes criterios:

1. La ampliación será de un día cuando la distancia sea superior a 100 kms y no superior a 200 kms.
2. La licencia se ampliará en dos días cuando la distancia sea superior a 200 kms y no superior a 250 kms.
3. La licencia se ampliará en tres días cuando la distancia sea superior a 250 kms.

En los tres casos, la distancia se entiende entre el centro de trabajo y el lugar donde se encuentre el/la familiar que dé origen al permiso (Centro Sanitario o domicilio).

g) Kontsultak medikoak.

1. Behar den denboraz langilea medikuntza orokorreko fakultatiboaren aginduz Gizarte Segurantzako espezialistaren kontsulta medikora joan behar den kasuetan, kontsulta ordutegiak eta lan-ordutegia aldi berean gertatzen badira. Langileak aldez aurretik enpresariari aipatu agindu medikoaren bolante justifikatzailea aurkeztu beharko dio.

Gizarte Segurantzako familiako sendagilearen kontsulta medikora joatea edo medikuntza pribatuak emandako asistentziaren kasuan, edo gisa honetako bestelako kasuetan, urtean gehienez 20 ordu ordaindu, hauek ere justifikatu beharko direlarik.

2. Horrez gain, beharrezko denboran, eta urtean 20 orduko muga orokorraren barruan, ez-laneratze arrazoituak sartu ahal izango dira, betiere behar bezala justifikatuta, seme-alabeei, gurasoei, ezkontideei eta izatezko bikoteei mediku-kontsultetara, mediku-azterketetara, ospitaleratzeetara eta garrantzi txikiro ebakuntzetara laguntzeko.

Familia guraso bakarrekoa bada (guraso alarguna edo aita edo ama bere kabuz izatea erabakitzen duen gizona edo emakumea), seme-alabei laguntzen joateko kreditua 30 ordu urtean izango da.

c), d) eta e) ataletako baimenez baliatzeko, maila bereko sende politikoak ere barne hartzen dira.

Halaber, behar bezala kreditatutako aitatasuna eta amatasuna aitortuko da, ezkontza loturarik egon ala ez egon.

h) Haurra jaiotzen denean edo haur bat adoptatzen denean edo adopzio aurreko zaintzan edo harreran hartzen denean, langileek lantokitik ordubete alde egiteko eskubidea edukiko dute bularreko haurrak bederatzi hilabete egin arte; denbora hori bi zatitan banatu ahal izango dute. Jaiotza, adopzio, adopzio aurreko zaintza edota harrera anizkoitzetan baimenaren iraupena proportzionalki handituko da.

Langileak, nahi badu, eskubide horren ordezkari aukeratu ahal izango du lanaldi arrunta ordubetez murriztea helburu bererako edo, bestela, lanaldi osoetan pilotzea adingabearen jaiotza eta zaintzako baimena amaitu ondoko egutegiko 14 lanegunetan.

Zenbaki honetan ezartzen den lanaldi-murrizketa langileen banakako eskubidea da; eskubide hau ezin du erabili beste gurasoak, beste adoptatzaileak, beste zaintzaileak ez beste harrengileak. Nolanahi ere, enpresako bi langilek edo gehiagok subjektu berak eragindako eskubidea erabili nahi badute, enpresak baimena biek aldi berean erabiltzeko aukera mugatu ahal izango du enpresa-jardunarekin lotutako arrazoiengatik (justifikatu egin behar dira). Enpresak idatziz eman beharko die horren berri.

Bi gurasoek, adoptatzaileek, zaintzaileek edo harreragileek eskubide hau iraupen eta araubide berarekin erabiltzen badute, gozamen-aldia bularreko umeak hamabi hilabete bete arte luzatu ahal izango da; haurrak bederatzi hilabete egiten dituenetik aurrera soldatari murrizketa proportzionala aplikatuko zaio.

i) Izaera publiko eta pertsonaleko betebeharrak saihestezin bat betetzeko beharrezko denboraz.

j) Pediatrak behar bezala justifikatutako seme-alaben gaitasunaren kasuan, urteko 14 ordutara arteko kopurua eman go da. Hau emateko beharrezkoa gertatuko da ondoko baldintza hauek biltzea:

1. Bi ezkontideek beren konturako edo besteren konturako langileak direla egiaztatzea.

2. Kontsulta ordutegia eta bi ezkontideen lan-jarduna aldi berean gertatzea.

Arestian aipatu diren baldintzak ez dira aplikatuko alargunen, bananduen, dibortziatuen eta ezkongaien kasuan, ezkondu gisa beste norbaitekin bizi ez badira behintzat.

g) Consultas médicas.

1. Por el tiempo necesario en los casos de asistencia del/de la trabajador/a a consulta médica de especialista de la Seguridad Social, cuando coincidiendo el horario de consulta con el trabajo se prescriba dicha consulta por el/la facultativo/a de medicina general, debiendo presentar previamente el/la trabajador/a al empresario/a el volante justificativo de la referida prescripción médica.

En los demás casos, como asistencia a consultas médicas del médico de cabecera de la Seguridad Social o asistencia prestada por la medicina particular, hasta el límite de 20 horas al año retribuidas, que deberán ser asimismo justificadas.

2. Asimismo, podrán incluirse, por el tiempo necesario y dentro de ese límite conjunto de 20 horas al año, las ausencias motivadas por acompañamiento, siempre que sea debidamente justificado, a consultas médicas, revisiones médicas, ingreso hospitalario e intervenciones quirúrgicas de menor importancia de hijos/as, padres, cónyuges y parejas de hecho.

En el caso de familias monoparentales compuestas por viudos/as, y hombres y mujeres que deciden ser padres o madres en solitario como único progenitor/a, el crédito para acompañamiento de hijos/as será de 30 horas anuales.

Para el disfrute de las licencias de los Apartados c), d) y e), se entienden también incluidos los/las parientes políticos/as en el mismo grado.

Asimismo, se reconocerá la paternidad y maternidad del hecho suficientemente acreditado, haya o no vínculo matrimonial.

h) En los supuestos de nacimiento, adopción, guarda con fines de adopción o acogimiento, las personas trabajadoras tendrán derecho a una hora de ausencia del trabajo, que podrán dividir en dos fracciones, para el cuidado del lactante hasta que este cumpla nueve meses. La duración del permiso se incrementará proporcionalmente en los casos de nacimiento, adopción, guarda con fines de adopción o acogimiento múltiples.

Quien ejerza este derecho, por su voluntad, podrá sustituirlo por una reducción de su jornada en media hora con la misma finalidad o acumularlo en jornadas completas inmediatamente posteriores al permiso de nacimiento y cuidado del menor en 14 días de los considerados como laborables en el calendario.

La reducción de jornada contemplada en este apartado constituye un derecho individual de las personas trabajadoras sin que pueda transferirse su ejercicio al otro progenitor, adoptante, guardador o acogedor. No obstante, si dos personas trabajadoras de la misma empresa ejercen este derecho por el mismo sujeto causante, la dirección empresarial podrá limitar su ejercicio simultáneo por razones justificadas de funcionamiento de la empresa, que deberá comunicar por escrito.

Cuando ambos progenitores, adoptantes, guardadores o acogedores ejerzan este derecho con la misma duración y régimen, el periodo de disfrute podrá extenderse hasta que el lactante cumpla doce meses, con reducción proporcional del salario a partir del cumplimiento de los nueve meses.

i) Por el tiempo indispensable para el cumplimiento de un deber inexcusable de carácter público y personal.

j) En el caso de enfermedad de hijos/as, debidamente justificada por el/la Pediatra, se concederán hasta 14 horas anuales, siendo necesaria para su concesión la concurrencia de las siguientes condiciones:

1. Que ambos cónyuges acrediten su condición de personas trabajadoras por cuenta propia o ajena.

2. Que el horario de consulta coincida con la jornada laboral de ambos cónyuges.

No se aplicarán las condiciones anteriores en los casos de viudos/as, separados/as, divorciados/as, solteros/as, en cuanto no convivan maritalmente con otra persona.

Lan-jardunaren eraginetarako, baimen hauek presentzia den-bora gisa zenbatuko dira.

a), b), c), d) eta e) ataletan ezarritako baimenen gozamenaren hasiera data berauek eragiten dituzten arrazoiarena izango da.

Langileak Arrazoi Eragilearen berri duenetik aurrera hasiko da zenbatzen.

Zenbatzeko ondorioetarako, egun naturalak edota hurrenez hurreneko lan-jardun erdiak orduetan murriztuko dira.

Arrazoi Eragilea gertatu den egunean bertan eman beharko da Arrazoi Eragilearen berri.

Hala ere, e) atalari dagokionez, langileak joan-etorriagatik baimenaren luzamendu bat izateko eskubidea duenean, ezkontzaren aurreko eguna erabili ahal izango du horretarako.

k) Familia-nukleoan genero-indarkeria egoteagatik: 2 egun natural, genero-indarkeriaren biktima izan diren 2. mailara arteko senideei laguntzeko. Inguruabar hori urruntze-agindua aitortzen duen autoaren ziurtagiriaren/kopiaren bidez egiaztatuko da.

* Izatezko bikoteak:

– Izatezko bikoteak, kideak zein sexutakoak diren alde batera, eta betiere bizikidetzara behar bezala egiaztatzen badute, artikuluko honetan ezkontzarako aurreikusitako eskubide berberak sortuko ditu. Bizikidetzara honako hauek aurkeztuta egiazta dezakete: Segituan gutxienez 2 urte batera errolatuta egotearen ziurtagiria, izatezko bikoteen erregistroaren ziurtagiria edo beste edozein agiri ofizial, biak elkarrekin bizitzen ari dela egiaztatzeko.

– Alabaina, zenbait kasutan (aita edo amaren, anai-arrebaren baten edo seme-alabaren baten gaixotasun larria edo ospitaleratzeari, ospitaleratzetik behar ez duen baina etxean geratzera behar duen ebakuntza kirurgikoa, heriotza, ezkontza eta edoskitzea), bikotekideari eta, orobat, bikotekideen seme-alabei eta gurasoei dagokiela joko da, ez beste inori; hala, beraz, lizentzia ezin izango da hartu, bikotekidearen anai-arrebak, bilobak edo aiton-amonak tartean daudenean.

12. artikulua. Amatasuna.

Martxoaren 3ko 3/89 Legeak sartutako aldaketak artikuluko honi txertatzea erabakitzen dute alderdiek.

Erditze arrazoiengatik lan-kontratuaren etenduran, Enpresak emakumezko langileari Gizarte Segurantzatik jasotzen duen prestazioarekin batera bere alokairu errearen % 100 garantizatze beharrezko alokairu-osagarria ordainduko dio.

Haurdun dagoen emakume orori, aldeztu aurretik Enpresako medikuak edo hau ez badago espezialistak txostena egin ondoren, eta langileak edo Enpresak eskatzen duenean, bere egoerarentzako lan neketsua edo arriskutsua burutzen badu, lanpostua aldatuko zaio arriskurik suposatzen ez duen beste lanpostu erosoago batekin, bere jatorrizko kategoria gordez.

Kasu horretan, Enpresaren Zuzendaritzak izendatuko du haurdun dagoen emakumeak hutsik utzi duen lanpostua derri-gorrez bete beharko duen pertsona, zeina egoeraren behin-behineko izaeragatik bere aurreko lanpostura joango baita haurdun dagoen emakumea bere lanpostura itzultzen denean.

Haurdun dauden emakumeek lanaldia egunean ordu bate murrizteko eskubidea edukiko dute, soldata gutxitu gabe, haurdunaldiko 37. astetik aurrera. Haurdunaldiko azken bi hiletan langileak telelanean jardun ahal izango du, enpresarekin ados ipiniz gero.

12 bis artikulua. Lanaldi-murrizketak, lanaldi-egokitzapenak eta eszedentziak.

1. Lanaldi-murrizketak.

Legezko zaintza dela-eta hamabi urtetik beherako haurra edo desgaitasunen bat daukan pertsona bat, ordaindutako jarduerarik egiten ez duena, zaindu behar duten langileek eta adi-

A efectos de jornada, estas licencias se computarán como tiempo de presencia.

La fecha de iniciación del disfrute de las licencias establecidas en los apartados a), b), c), d) y e), será la del hecho causante.

Su cómputo se iniciará a partir de la hora de conocimiento del Hecho Causante por el/la Trabajador/a.

A efectos del cómputo, los días naturales o las medias jornadas consecutivas naturales se reducirán a horas.

La hora de conocimiento del Hecho Causante no podrá exceder del día en que se produzca dicho Hecho Causante.

No obstante, con referencia exclusiva al apartado e), en el supuesto de que el/la trabajador/a tuviera derecho a una ampliación de la licencia por desplazamiento, podrá utilizar para ello el día inmediatamente anterior a la boda.

k) Por situación de violencia de género en el núcleo familiar: 2 días naturales para el acompañamiento de familiares hasta el 2.º grado que hayan sido víctimas de violencia de género. Dicha circunstancia se acreditará mediante certificado/copia del Auto que declare la correspondiente orden de alejamiento.

* Parejas de hecho:

Las parejas de hecho, indistintamente de cual sea el sexo de sus componentes, siempre que la convivencia se acredite de forma suficiente (certificado de empadronamiento común por un período continuado de al menos dos años con anterioridad a la fecha de solicitud, certificación de registro de parejas de hecho o cualquier otro documento que, con carácter oficial, acredite su situación de convivencia de pareja) generará los mismos derechos que los contemplados en este artículo para el caso de matrimonio.

No obstante, en los supuestos de enfermedad grave u hospitalización, intervención quirúrgica sin hospitalización que precise reposo domiciliario, muerte, matrimonio de padre/madre, hermanos/as, hijos/as y lactancia, se referirá exclusivamente al compañero/a, así como a los hijos/as y padres de los convivientes, no siendo extensible la licencia para los hermanos/as, nietos/as y abuelos/as del otro conviviente.

Artículo 12. Maternidad.

Las partes acuerdan incorporar a este artículo las modificaciones introducidas por la Ley 3/89 de 3 de marzo.

Durante la suspensión del Contrato de Trabajo por causas de parto, la Empresa abonará a la mujer trabajadora el complemento salarial necesario para garantizarle, junto con la prestación que perciba de la Seguridad Social, el 100 % de su salario real.

Toda mujer embarazada, previo informe médico de la Empresa o del/ de la especialista si aquél no existiera, y cuando la trabajadora o la Empresa lo solicitasen, si desarrollase un trabajo penoso o peligroso para su estado, se le cambiará de puesto de trabajo a otro más cómodo sin riesgo para su estado, conservando su categoría original.

En este supuesto, la Dirección de la Empresa designará a la persona que obligatoriamente deberá cubrir el puesto dejado vacante por la embarazada y que por el carácter de provisionalidad de la situación se incorporará a su anterior puesto cuando la embarazada se reintegre al suyo propio.

Las mujeres embarazadas tendrán derecho a una reducción de una hora diaria sin disminución del salario a partir de la semana 37 de gestación. Durante los dos últimos meses de embarazo y siempre por acuerdo entre la empresa y la trabajadora, se podrá prestar servicios a través de la modalidad de teletrabajo.

Artículo 12 bis. Reducciones de jornada, adaptaciones y excedencias.

1. Reducciones de jornada.

Quien por razones de guarda legal tenga a su cuidado directo algún menor de doce años, una persona con discapacidad que no desempeñe una actividad retribuida o precise encargar-

nagatik, istripua izan duelako edo gaixorik dagoelako bere kabuz baliatu ezin den bigarren gradura arteko odol-ahaide zein ezkontza bidezko ahaide bat, ordaindutako jarduerarik egiten ez duena, artatu behar duten langileek beren eguneko lanaldia murrizteko eskubidea edukiko dute: gutxienez lanaldiaren zortzirena murriztuko da eta gehienez erdia. Soldata murrizketa horren porrotzioan gutxituko da.

Gurasoek, adoptatzaileek nahiz adopzio aurreko zaintza nahiz harrera iraunkorra egiten dutenek lanaldia murrizteko eskubidea izango dute. Hori eginez gero, hainbatean murriztuko zaie soldata. Horiek horrela, lanaldia gutxienez haren erdira murriztu dezakete haien kargura duten haurra ospitalean eta tratamendu jarraituan dagoen bitartean, baldin eta aipatu adingabeak minbizia (tumore gaiztoa, melanoma edo kartzioma) edo beste gaixotasun larriren bat badauka eta ondorioz ospitalean egon behar badu denbora luzez eta zuzeneko nahiz etenik gabeko zaintzak behar baditu. Horrelakoetan, kasuan kasuko autonomia erkidegoko osasun zerbitzu publikoaren edo osasun-administrazioako organoak egindako txostena aurkeztu beharko du langileak. Eskubideak adingabeak hemezortzi urte egin arte iraungo du gehienez.

Langile guztiek dute atal honetan aipatzen diren lanaldi-murrizketak aplikatzeko eskubidea, gizonek zein emakumeek. Nolanahi ere, enpresako bi langilek edo gehiagok subjektu berak eragindako eskubidea erabili nahi badute, enpresak eskubidea denek aldi berean erabiltzeko aukera mugatu ahal izango du enpresajardunarekin lotutako arazoengatik (justifikatu egin behar dira).

Ezinbesteko kasuetan izan ezik, langileak hamabost egun arinago jakinarazi beharko dio enpresaburuari zer egunetan hasiko den lanaldi-murrizketa eta zer egunetan amaituko den.

